



# DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA 2024-2027



Legazpiko Udala

[www.legazpi.eus](http://www.legazpi.eus)

# AURKIBIDEA

I. OHAR OROKORRAK _____	3
A) Atarikoa _____	3
B) Arau-testuingurua _____	4
II. IZAERA JURIDIKOA ETA PLANAREN XEDEA _____	6
III. PLANAREN EDUKIA _____	8
IV. PLANA ONARTZEKO ESKUMENA eta eremu subjektiboa _____	10
A) Plana onartzeko eskumena _____	10
B) Eremu subjektiboa _____	10
V. DENBORA-EREMUA, INDARRALDIA ETA EGUNERATZEA _____	11
VI. PLANAREN ALDERDI ESTRATEGIKOAK _____	12
A) Xedea _____	12
B) Helburu estrategikoak edo orokorrak _____	12
C) Printzipio orokorrak _____	13
VII. JARDUERA-ILDO ESTRATEGIKOAK _____	15
VIII. ONURADUNAK ETA EMATEKO PROZEDURAK _____	17
A) Onuradunak _____	17
B) Emateko prozedurak _____	17
IX. ONDORIOAK, GAUZATZEKO EPEAK, AURREIKUS DAITEZKEEN KOSTUAK ETA FINANTZAKETA _____	19
A) Ondorioak _____	19
B) Gauzatzeko epeak _____	19
C) Aurreikus daitezkeen kostuak _____	20
E) Finantzaketa _____	20
X. DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN KONTROLA, JARRAIPENA ETA GARDENTASUNA _____	21
A) Kontrola eta jarraipena _____	21
B) Gardentasuna _____	22

# I. OHAR OROKORRAK

## A) Atarikoa

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Zioen Azalpenaren arabera, sektore publikoaren finantza-jardueraren zati handi bat diru-laguntzen bitartez bideratzen da. Finantza-jarduera horren helburua da pertsona eta erakunde publiko nahiz pribatuen eskaera sozial eta ekonomikoei erantzutea finantza-laguntza emanaz.

Ekonomiaren ikuspegitik, diru-laguntzak gastu publikoaren modalitate garrantzitsua dira, eta, beraz, aurrekontu-politikaren jarraibideetara egokitu behar dira. Politika hori, gaur egun, aurrekontu-egonkortasunaren, finantza-iraunkortasunaren eta hazkunde ekono-mikoaren irizpideek bideratzen dute.

Ikuspegi horretatik, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorra beste urrats bat da gure sistema ekonomikoa arrazionalizatzeko prozesuan, eta helburu horrekin antolatu diren neurri eta erreformetan txertatzen da.

Gardentasuna da lege hori arautzen duten printzipioetako bat, eta printzipio bera jasotzen da aurrekontu-egonkortasunari buruzko araudian ere. Xede horrekin, administrazio publikoek publiko egin beharko dituzte ematen dituzten diru-laguntzak. Aldi berean, legeak ezartzen du emandako diru-laguntza guztiei buruzko informazio garrantzitsua jasoko duen nazio-mailako datu-base bat osatu behar dela.

Gardentasun handiago horrek zuzenean dakar eraginkortasun- eta efizientzia-mailak handitzea diru-laguntzen gastu publikoaren kudeaketan.

Eraginkortasuna hobetzeko ildo horretan, 38/2003 Legeak administrazio publiko bakoitzean diru-laguntzen plan estrategiko bat egin behar dela ezartzen du, kudeaketa-elementu eta hobekuntza horretarako tresna izango dena. Plan horrek lortu nahi diren helburuak eta lortu nahi diren ondorioak aurreikusitako kostuekin eta horien finantzaketarekin lotuko ditu, diru-laguntzen bidez bete nahi diren premia publikoak eskuragarri dauden baliabideekin egokitzeko; eta hori guztia diru-laguntza eman aurretik.

Gainera, legeak jarraipena egiteko sistema bat planteatzen du helburuak kontrolatuz eta ebaluatuz. Sistema horrek aukera eman behar du nahi den helburuen lorpen-mailara iristen ez diren edo inbertitutako baliabideen mailarako desegokiak diren diru-laguntza lerroak aldatzeko edo eraginkorragoak diren beste batzuekin ordeztzeko, edo, hala badagokio, kentzeko.

Administrazioaren ikuspegitik, diru-laguntzak interes orokorrekoetat jotzen diren jokabide jakin batzuk sustatzeko teknika bat dira, baita administrazio publikoaren eta partikularren arteko lankidetzaren-prozedura bat ere, interes publikoko jarduerak kudeatzeko.

Era askotako diru-laguntzak daude, prozedura konplexuen bidez ematen direnak, eta, beraz, jarraipen eta kontrol eraginkorra behar dute.

Horrela, Diru-laguntzen Plan Estrategikoa beharrezko osagarria da diru-laguntzak emateko modua antolatzeke, gardentasunaren eta aurrekontu-orekaren printzipioak errespetatuz.

## **B) Arau-testuingurua**

Diru-laguntzen Plan Estrategikoa egitearen justifikazioa, oro har, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen zioen azalpenean xedatutakoan oinarritzen da. Eta, bereziki, beste arau hauetan ere oinarritzen da: aipatu arau horren 8. artikuluan, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege-dekretuaren 10. artikuluan eta hurrengoetan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan eta Diru-laguntzei buruzko 2006ko maiatzaren 31ko Udal Ordenantzan.

38/2003 Legearen arabera, administrazio bakoitzean Diru-laguntzen Plan Estrategiko bat egin behar da, administrazio publikoen jardueren eraginkortasuna hobetzeko kudeaketa-elementu eta tresna gisa. Plan horrek lortu nahi diren helburuak eta lortu nahi diren ondorioak aurreikusitako kostuekin eta horien finantzaketarekin lotuko ditu, diru-laguntzen bidez bete nahi diren premia publikoak eskuragarri dauden baliabideekin egokitzeke; eta hori guztia diru-laguntza eman aurretik.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 8.1 artikulua honakoa jasotzen du: *“Administrazio Publikoetako organoek edo diru-laguntza ematea proposatzen duen edozein erakundek, alde aurretik, Diru-laguntzen Plan Estrategiko batean zehaztu beharko dituzte hura aplikatzean lortu nahi diren helburuak eta ondorioak, hori lortzeko behar den epea eta aurreikusten diren kostuak eta finantzatzeko iturriak, betiere aurrekontu-egonkortasuneko helburuak betetzearen mende”*.

Diru-laguntzen Lege Orokorraren aipatu 8. artikulua hori Diru-laguntzen Legearen Erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege-dekretuaren 10. artikulutik 15.era bitartekoek garatu dute honakoak ezarriz: printzipio gidariak zeintzuk izan behar duten,

Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren eremua eta edukia eta, halaber, plana onartzeko eskumena eta hari egin behar zaion jarraipena.

Diru-laguntzei buruzko Legearen aipatu Erregelamendu Orokorreko 11. artikulua arabera, plan estrategikoak, nolainai here, ekitaldi bakoitzerako ezarriko diren politika ekonomikoko eta aurrekontu-egonkortasuneko helburuak betetzeko zehazten diren murrizketetara egokitu beharko dira. Hiru (3) urteko indarraldirako aurreikuspenak jasoko dituzte, eragindako sektorearen izaera berezia dela-eta beste iraupen bateko plan estrategiko bat ezartzea komeni denean izan ezik.

Era berean, eta edozelan ere, Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 4. artikulua toki-erakundeei ematen dien arau-ahalaren arabera, arau-esparru orokorra honako berezko arau edo tresna propio hauekin osatzen da:

- Legazpiko Udalaren Diru-laguntzen Udal Ordenantza, 2006ko maiatzaren 31n egindako bilkuran Udalbatzak hasiera batean onartua eta Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean 2006ko abuztuaren 8an argitaratua (GAO, 149. zk.).
- Aurrekontuak izapidetzearekin batera ekitaldi bakoitzerako onartzen diren aurrekontuak betearazteko udal-arauak.

Diru-laguntzen Plan Estrategikoen garrantziari dagokionez, Auzitegi Gorenak berriki emandako jurisprudentzia azpimarratu behar da; horrela, zehazki 2013ko apirilaren 16ko epaiak eta 2012ko ekainaren 26ko eta abenduaren 4ko epaiak honako hau arrazoitu zuten, laburbilduta: “Diru-laguntzen Lege Orokorren 8.1 artikuluan aipatzen diren *diru-laguntzen plan estrategikoak edozein diru-laguntza ezarri aurretik egin behar dira; funtsezko baldintza bat dira eta horiek betetzeko ezinbestekoa da 8. artikuluko 1. paragrafoan jasotako edukiaren arabera formalizatzea. Plan horren baliokidea ez da, bistan denez, udal-aurrekontuan laguntzak emateko partida bat sartzea”.*

Plan estrategiko hau Legazpiko Udaleko diru-laguntzak kudeatzeko ardura duten udal-zerbitzu guztien parte-hartzearekin egin da.

## II. IZAERA JURIDIKOA ETA PLANAREN XEDEA

Diru-laguntzen Plan Estrategikoa tresna bat da, eta, bertan, alde batetik, diru-laguntzen emakida arautuko duten printzipio orokorrak eta inspiratzaileak gauzatzen dira, bai eta horien justifikazioa ere; eta, bestetik, abian diren diru-laguntzak kontrolatzeko neurriak ezartzen dira, eman ondoren, etorkizunean emango direnak hobetu ahal izateko, ikusitako desbideratzeak zuzenduz.

Eta adierazitakotik eta Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren erregulaziotik ondorioztatzen da haren helburua eskura dauden baliabideekin ahalik eta eraginkortasun handiena lortzea dela, horretarako aurrekontu-egonkortasunaren printzipiotik eratorritako mugak errespetatuz.

Gainera, Diru-laguntzen Plan Estrategikoa kudeaketa-tresna programatikoa eta arau-mailarik gabekoa denez, ez du eragin zuzenik diru-laguntzen onuradun izan daitezkeenen eremuan, eta, beraz, ez du ez eskubiderik ez betebeharririk sortuko onuradunentzat. Planak eraginkorrak izango dira, baldin eta diru-laguntzen lerro desberdinak abian jartzen badira, eta, besteak beste, ekitaldi bakoitzeko aurrekontu-baliabideak kontuan hartuta. Beraz, plan honetan aurreikusitako diru-laguntzak benetan ezarri ahal izateko, dagozkion diru-izendapenak sartu beharko dira udal-aurrekontuetan, eta diru-laguntza horiek emateko oinarri arautzaileak edo dagozkion agiria onartu beharko da.

Barne-ondorioek, ordea, bi zentzutan lotzen dute udal-korporazioa. Lehenik eta behin, debekatu egingo dute planean aurreikusita ez dauden ekintza-lerroetarako diru-laguntzak ematea. Bigarrenik, aurreikuspenekiko balizko desbideratzeak arrazoitzeke betebeharrak espezifikoa ezartzen dute, hargatik eragotzi gabe jarraipen-txostenetatik eratorzen diren aldaketak, Diru-laguntzei buruzko Legearen Erregelamenduaren 15. artikulua arabera.

Gainera, Diru-laguntzen Plan Estrategikoak sustapen-ekintzaren betetzea arrazionalizatzeko tresna izan behar du, ekintza horri eusten jarraitu ahal izateko eta, aldi berean, baliabideak errentagarri bihurtzeko eraginkortasun-irizpideen bidez; izan ere, gerta daitezkeen zirkunstantziak direla-eta, baliabide horiek mugatuak izan daitezke.

Diru-laguntzen Plan Estrategikoa kudeaketa publikoko tresna eraginkor gisa konfiguratu da, baliabide ekonomikoak zentzuz banatzeko, politika publikoak egiteko eta Legazpiko Udalak

agindutako helburuak lortzeko. Planaren helburu nagusietako bat aurrekontuetan aurreikusitako diru-laguntza lerroak sistematizatzea da, eta, horrela, diru-laguntzen egungo politika etorkizunean ebaluatzen lagunduko du, planaren ebaluazio- eta jarraipen-txostenen bidez.

### III. PLANAREN EDUKIA

Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren edukia Diru-laguntzen Erregelamenduaren 12. artikuluan aurreikusitakora egokituko da; artikulua horrek, halaber, haren ebaluazioa eta jarraipena aurreikusten ditu. Honakoa ezartzen du aipatutako artikulua:

*“1. Plan estrategikoek honakoak jasoko dituzte:*

*a) Helburu estrategikoak, planaren indarraldian ekintza instituzionalarekin lortu nahi den eragina eta inpaktua deskribatzen dutenak, eta dagozkien aurrekontu-programetan ezarritako helburuekin lotuta egon behar dutenak. Helburu estrategikoek merkatuari eragiten diotenean, zuzendu nahi diren akatsak ere identifikatu beharko dira, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 8. artikulua 2. apartatua aurreikusitako ondorioekin.*

*b) Jarduketa-plana gauzatzeko diru-laguntzen lerroak. Diru-laguntzen lerro bakoitzerako, alderdi hauek zehaztu beharko dira:*

*1.- Eragindako eskumen-arloak eta laguntzen xede diren sektoreak.*

*2.- Diru-laguntzekin lortu nahi diren helburuak eta ondorioak.*

*3.- Lortzeko behar den epea.*

*4.- Gauzatzeko aurreikus daitezkeen kostuak eta finantzaketa-iturriak, non administrazio publikoen, Europar Batasunaren eta sustapen-ekintza horietan parte hartzen duten beste organo publiko edo pribatu batzuen ekarpenak zehaztuko diren, bai eta, osagarritasun-printzipioa kontuan hartuta, diru-laguntzen onuradunei dagozkienak ere.*

*5.- Ekintza-plana. Bertan, honako alderdiak zehaztuko dira: planean identifikatutako diru-laguntzen lerroak praktikan jartzeko mekanismoak, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 9. artikuluan aipatzen diren emakidaren oinarri arautzaileek jaso behar dituzten oinarrizko ildoak, plana egiteko egutegia eta, hala badagokio, administrazio publikoen arteko koordinazio-irizpideak, diru-laguntza kudeatzeko.*

*c) Ezartzen diren diru-laguntza lerro desberdinei aplikatu beharreko etengabeko jarraipen- eta ebaluazio-araubidea. Ondorio horietarako, diru-laguntza lerro bakoitzerako, Planaren helburuekin lotutako adierazleen multzo bat zehaztu behar da. Adierazle horiek planaren jarraipena egingo duten arduradunek aldi behin jasoko dituzte, eta aukera emango dute egoera zein den eta helburuak betetzeko zer aurrerapen egin diren jakiteko.*



*d) Aurreko plan estrategikoen ebaluazioaren emaitzak, egindako txostenen edukia jasoko dutenak.*

*2. Plan estrategikoaren edukia helburuak, gauzatze-kostuak eta finantzaketa-iturriak jasoko dituen memoria bat egitera mugatu ahal izango da, honako kasu hauetan:*

*a) Zuzenean ematen diren diru-laguntzak direnean, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 22.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.*

*b) Ministerio-saileko titularrak, modu arrazoituan, zehazten dituen diru-laguntzak direnean, esku-hartze publikorako tresna gisa garrantzi ekonomiko edo sozial txikia dutelako.*

*3. Diru-laguntzen plan estrategikoek izaera programatikoa dute, eta plan horien edukiak ez du ez eskubiderik ez betebeharririk sortzen. Plan horiek eraginkorrak izan daitezten, diru-laguntzen lerro guztiak martxan jarri beharko dira, eta, beste baldintza batzuen artean, ekitaldi bakoitzeko aurrekontu-baliabideak hartuko dira kontuan.”*

Legazpiko Udalaren 2024-2027 aldirako Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren fitxak "2024-2027 aldirako Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren eranskina" izeneko eranskinean jasotzen dira. Bertan, diru-laguntzen organo kudeatzaileek sailkatuta, bakoitzari buruz honako hau zehazten da:

- Diru-laguntzekin lortu nahi diren helburuak eta ondorioak.
- Eragindako eskumen-arloak eta laguntzen xede diren sektoreak.
- Denbora-eremua / Lortzeko behar den epea.
- Aurreikusitako kostuak eta finantzaketa-iturriak. Urte anitzeko programazioa.
- Ekintza-plana.
- Diru-laguntzen Plan Estrategikoarekin lotutako jarraipen- eta ebaluazio-araubidea eta adierazleak.
- Araubidea / Emakida modalitatea
- Onuradunak.
- Dagokion kreditua esleitzeko aurreikusten den aurrekontu-aplikazioa eta zenbatekoa.

## IV. PLANA ONARTZEKO ESKUMENA ETA EREMU SUBJEKTIBOA

### A) Plana onartzeko eskumena

Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartzeko organo eskuduna Tokiko Gobernu Batzordea da, diru-laguntzen edo sustapen-jardueraren plangintza estrategikorako eta kudeaketa ekonomikorako tresna baita, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 127. artikulua g) letran aurreikusitakoaren arabera.

Diru-laguntzen Plan Estrategikoa, Tokiko Gobernu Batzordeak onartu aurretik, Zuzendaritzan aurkeztu zen, horren berri izateko, eta udalaren webgunean argitaratzen da: [www.legazpi.eus](http://www.legazpi.eus).

### B) Eremu subjektiboa

Legazpiko Udalak menpeko erakunderik ez duenez, Diru-laguntzen Plan Estrategiko honek Udalak berak zuzenean emandako diru-laguntzak baino ez ditu barne hartzen.

## V. DENBORA-EREMUA, INDARRALDIA ETA EGUNERATZEA

Diru-laguntzen Plan Estrategiko honek lau urteko indarraldia izango du, aurtengoa barne, eta, beraz, 2024-2027 aldia hartuko du. Hala ere, diru-laguntzen lerro batzuek indarraldi laburragoa izan dezakete.

Aurrekoa gorabehera, urtero, jarraipen-txostenak ikusita eta aurrekontu-baliabideak kontuan hartuta, aldatu ahal izango dira, beste batzuekin ordeztu edo diru-laguntzen lerroak ezabatu.

Lerro bakoitzaren barruan edukiaren edozein alderdi eguneratu edo aldatu ahal izango da, bai jarraipen-txostenetan helburuak lortzeari edo inbertitutako baliabideak egokitzeari buruz emandako emaitzengatik, bai behar bezala justifikatutako beste arrazoi batzuegatik.

Logikoa denez, diru-laguntzen lerroren batek Diru-laguntzen Plan Estrategiko honetan aurreikusita ez dagoen aurrekontu-aldaketaren bat sartu nahi badu, aldatu egin beharko da plan estrategikoa aldeztu aurretik edo aldi berean. Lehendik dauden diru-laguntza lerroak aldatzen diren kasuetan, ez da beharrezkoa izango Diru-laguntzen Plan Estrategikoa aldatzea, baldin eta lerro baten diru-laguntza bati esleitutako zenbatekoa bakarrik aldatzen bada, betiere haren gainerako atalak aldatzen ez badira. Gertaera hori espedientean egiaztatu beharko du dagokion zentro kudeatzaileak.

## VI. PLANAREN ALDERDI ESTRATEGIKOAK

### A) Xedea

Udalaren diru-laguntza jarduera osoaren izateko arrazoia da.

*Legazpiko elkarte-sareak udal-kudeaketaren eremu guztietan parte har dezan bultzatzea eta sustatzea, bai eta pertsonen gizarteratzea sustatzea ere, gizarte-egoera zaurgarrian daudenentzako laguntza ekonomikoak eskainiz.*

### B) Helburu estrategikoak edo orokorrak

Helburu estrategikoek, ekintza instituzionalarekin plana indarrean dagoen bitartean lortu nahi den eragina eta inpaktua deskribatzen dute, eta dagozkien aurrekontu-programetan ezarritako helburuekin lotuta egon behar dute.

Plan honen ondorioetarako, diru-laguntzat hartuko da Udalak pertsona publiko edo pribatuen alde egindako diru-ezarpen oro, baldin eta baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) Onuradunen zuzeneko kontraprestaziorik gabe ematea.
- b) Diru-laguntza emateko helburu jakin bat bete behar da, proiektu bat gauzatu behar da, jarduera bat egin behar da, jokabide berezi bat hartu behar da, dagoeneko eginda edo garatu gabe, edo egoera bat gertatu behar da. Eta onuradunak ezarritako betebeharrak materialak eta formalak bete behar ditu.
- c) Finantzatutako proiektuaren, ekintzaren, jokabidearen edo egoeraren helburua onura publikoko edo interes sozialeko jarduera bat sustatzea edo helburu publiko bat sustatzea izatea.

Lehentasunezko helburuei dagokienez, honakoak daude: onura publikoko edo gizarte-intereseko era guztietako jarduerak sustatzea edo helburu publiko bat sustatzea, betiere

irabazi-asmorik gabe, etekin ekonomiko gutxiko jarduerak garatzen eta sustatzen lagunduz, eta herritarrek udal-jardunean parte hartzeko eta elkartzeko sareak sortzea bultzatzea.

Honako hauek dira Diru-laguntzen Plan Estrategiko honen eta Legazpiko Udalak 2024-2027 aldirako dituen laguntza eta diru-laguntza lerroen helburu orokorrak:

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 8.1 artikuluan jasotako lege-agindua betetzea. Artikulu horren arabera, Udalek, diru-laguntzak eman aurretik, dagokien Plan Estrategikoa onartu behar dute.
- Printzipio eta gauzatze-oinarri komun batzuk ezartzea eta normalizatzea, laguntza eta diru-laguntzen lerro eta programa anitz eta desberdinetarako.
- Diru-laguntzen udal-kudeaketa hobetzea eta arrazionalizatzea, laguntza-lerroen kudeaketan zeharkakotasuna, eraginkortasuna eta efizientzia baloratzuz.
- Udalak izapidetu beharreko diru-laguntzak emateko eta justifikatzeko bete behar den araubidea arautzea.

### C) Printzipio orokorrak

Diru-laguntzen arloko arautze juridikoak jarduteko printzipio orokor batzuk ezartzen ditu. Printzipio horiek Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren funtsezko elementuak dira, eta diru-laguntzen arloko udal-kudeaketa zuzendu behar dute.

- **Publizitate-printzipioa:** Printzipio hori deialdiaren publikotasuna bermatzen duen alde zuzeneko deialdian eta emandako diru-laguntzen publizitatean gauzatzen da, hargatik eragotzi gabe diru-laguntzak zuzenean emateko aukera, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, Udalaren aurrekontua betearazteko oinarrietan eta aplikatu beharreko gainerako araudian ezarritakoaren arabera.
- **Lehia askearen printzipioa:** Printzipio hori onuradunek bete behar dituzten baldintzak zehaztean gauzatzen da, eta ez zaie sarbidea mugatzen baldintza berdinetan daudenei, funts publikoen banaketan lehia eta berdintasuna bermatze aldera. Horrek ez du esan nahi zuzeneko emakidarik egin ezin denik; kasu horretan aplikatu beharreko arauan ezarritakoaren arabera egingo dira emakidak, alde zuzeneko behar besteko aurrekontu-baliabideak baldin badaude.

- **Objektibotasun-printzipioa:** Deialdian alde zurretik ezarritako irizpide objektiboen arabera emango dira diru-laguntzak, onuradun izan daitezkeenek haiek alde zurretik ezagutzen dituztela bermatzeko.
- **Gardentasunaren, berdintasunaren eta diskriminazio ezaren printzipioa** baliabide publikoak esleitzerakoan. Printzipio hori gauzatzeko, lehiaren, objektibotasunaren eta publizitatearen printzipioak bete behar dira, zuzeneko emakidaren legeko kasuak aplikatzeari kalterik egin gabe.
- **Eraginkortasun eta efizientzia printzipioak:** Eraginkortasuna ezarritako helburuak betetzean, emandako diru-laguntzen jarraipena eta kontrola egiteko prozedura bat ezarrita, eta efizientzia baliabide publikoak esleitzerakoan, diru-laguntzak baloratuta eta proiektu efizienteenak esleituta. Jasotako diru-laguntzak kuantitatiboki eta kualitatiboki justifikatu beharko dira.
- **Aurrekontu-egonkortasunera egokitzearen eta gastu-arauaren printzipioa:** Diru-laguntzak emateko orduan, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren printzipioak eta gastu-araua bete beharko dira, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan aurreikusitako moduan.
- Erakunde eskatzaileen **helburuak kontrolatzeko eta aztertze printzipioa**, hain zuzen, diruz lagundutako jarduerak gauzatzean berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioetara egokitzen ote diren.

## VII. JARDUERA-ILDO ESTRATEGIKOAK

Honako hauek dira Diru-laguntzen Plan Estrategiko honetan jasotako jarduera-ildo estrategikoak, Arlo eta Zerbitzuen arabera laburbilduta.

Hala ere, horietako bakoitzaren xehetasuna "2024-2027 aldirako Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren eranskina" izeneko eranskinean jasotzen da.

ZERBITZUA	AZALPENA
<b>Euskara</b>	Hitzarmena GOIERRIKO HEDABIDEAK enpresarekin.
	Euskara ikasteko eta UEUko edo euskararen normalizazioarekin zerikusia duten bestelako ikastaroetara joateko diru-laguntza.
	Errotuluak, irudi korporatiboa eta Web gunea euskaraz jartzeko diru-laguntzak.
	Kirol-hezitzaile/-entrenatzaileen prestakuntza euskaraz eskaintzeko dirulaguntza
<b>Kultura</b>	Hitzarmena LEGAZPI ZINE KLUB elkartearekin.
	Hitzarmena ARKATZA elkartearekin.
	Hitzarmena BURDINOLA elkartearekin. Hitzarmena TXIRBIL elkartearekin.
<b>Kirolak</b>	Kirol Federatua.
	Hitzarmena TELLERiarTE TXIRRINDULARI ELKARTEArekin.
	Eskola Kirola. Eliteko kirolariak.
<b>Hezkuntza</b>	Hitzarmena DOINUA MUSIKA ESKOLA elkartearekin.
	Hitzarmena DOMINGO AGIRRE GURASOEN elkartearekin.
	Hitzarmena OLAZPI GURASOEN elkartearekin.
	Hitzarmena HAZTEGI IKASTOLA elkartearekin. Eskola-materiala erosteko diru-laguntzak.
<b>Gazteria</b>	Hitzarmena SORGINTXULO AISIALDI TALDEArekin
	Grabazioak egiteko herriko musika taldeentzat diru-laguntzak.
<b>Merkataritza</b>	Hitzarmena Legazpiko Iinti merkatarien elkartearekin.
	Zerbitzuen sektorean jarduera ekonomikoa sustatzeko dirulaguntzak..
<b>Turismoa</b>	Hitzarmena LENBUR Fundazioarekin.

<b>Gizarte Zerbitzuak</b>	Legazpin gizarte-zerbitzuen arloan diharduten elkarteentzako diru-laguntzak. Hitzarmena ZAPOREAK erakundearekin. Hitzarmena Euskal Fondoarekin. Hitzarmena ITSAS SALBAMENDU HUMANTARIOAREKIN. Gizarte Larrialdietarako Diru-laguntzak.. Tratamendu terapeutikora eta errehabilitazioetara joateko gastuetarako diru-laguntzak.
<b>Ingurumena</b>	Hitzarmena BIOGIPUZKOA OSASUN IKERKETA INSTITUTU ELKARTEAREKIN Hitzarmena LEGAZPIKO TOTIKO ENERGIA KOMUNITATEA “TEK LEGAZPI” ELKARTEAREKIN



## VIII. PERTSONA EDO ERAKUNDE ONURADUNAK ETA EMATEKO PROZEDURAK

### A) Onuradunak

Diru-laguntzen onuraduna izango da diru-laguntza ematea eragin zuen jarduera egin behar duen pertsona edo erakundea, edo diru-laguntza ematea legitimatzen duen egoeran dagoena.

### B) Emateko prozedurak

Legazpiko Udalak diru-laguntzen arloan indarrean dagoen araudiaren arabera emango dizkie diru-laguntzak pertsona fisiko edo juridikoei, publiko edo pribatuei, norgehiagokaraubideko deialdi publikoaren bidez edo, salbuespen gisa, zuzeneko emakidaren bidez.

Jarduera bat Udalaren Aurrekontu Orokorren kontura diruz laguntzeko edo lagundu ahal izateko, honako helburu hauetakoren bat izan beharko du:

- Udal-eskumeneko helburuak osatzea, laguntzea, prestatzea, bultzatzea edo ordezkatzea.
- Gizarte-intereseko jarduera sustatzea.
- Herritarren interes orokorrak edo sektorialak defendatzeko helburua duten elkarteak sustatzea.
- Laguntza ekonomikoen bidez, gizarte-egoera ahulean daudenei gizarteratzen laguntzea.

Diru-laguntzak emateko, prozedura hauek ezartzen dira:

- Norghegiagoka-erregimenean emandako diru-laguntzak.
- Aurrekontuetan aurreikusitako diru-laguntza izendunak.
- Zuzenean emandako diru-laguntzak, interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiengatik edo deialdi publikoa zailtzen duten eta behar bezala justifikatuta dauden beste arrazoi batzuegatik.

- Lege-mailako arau baten bidez Legazpiko Udalari ematea ezartzen zaizkion diru-laguntzak edo zenbatekoa. Kasu horietan, beren araudiaren arabera aplikatu behar zaien emakida-prozedurari jarraituko zaio.

Oro har, diru-laguntzak norgehiagoka-araubidearen arabera emango dira; eta horretaz gain, zuzeneko laguntzaren bidez eman ahal izango dira udal-aurrekontuetan izendun gisa agertzen diren diru-laguntzak; eta, diru-laguntzaren izaeraren, presaren edo interes publikoaren arabera, bestelako esleipen-prozeduraren bat behar den kasuetan, indarrean dagoen legeriarekin bat etorriz emango dira eta dagokion justifikazioa aurkeztu ondoren. Diru-laguntzen oinarrietan, arautzen den diru-laguntza lerro bakoitzerako prozedura egokia jaso beharko da.

## **IX. ONDORIOAK, GAUZATZEKO EPEAK, AURREIKUS DAITEZKEEN KOSTUAK ETA FINANTZAKETA**

### **A) Ondorioak**

Diru-laguntzen Plan Estrategikoak hainbat jarduera garatu edo bideratu nahi ditu, udalerriko gizarte-sektoreek era guztietako premiak (sozialak, profesionalak eta aisialdikoak) asetzera bideratutako proiektuak garatzeko aukera izan dezaten. Beraz, diruz lagundutako jardueraren bidez:

- interes orokorreko jarduerak sustatu nahi dira, bai eta toki-erakunde horren eta herritarren arteko lankidetzaren ere, interes publikoko jarduerak kudeatzeko.
- Legazpiko gizarte zibilaren parte-hartzea bultzatu eta sustatu nahi da, aldi berean interesgarriak diren udal-kudeaketaren eremu guztietan, bai eta pertsonen gizarteratzea sustatu ere, gizarte-egoera zaugarrian daudenentzako laguntza ekonomikoen bidez.

Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartzeak ez du esan nahi onuradun izan daitezkeen aldeko eskubiderik sortuko denik, eta ezingo dute kalte-ordainik edo konpentsaziorik eskatu, plana bere horretan gauzatzen ez bada.

Era berean, interes orokorreko edozein jarduera sustatzeko ekintzak ere kontuan hartu beharko dira; eta, horretarako, diru-laguntza horietarako udal-aurrekontuan urtero esleitzen diren funtsak bideratu ahal izango dira.

### **B) Gauzatze epeak**

Oro har, udal-diru-laguntzak gauzatze epea urtebetekoa izango da, eta justifikazio-aldia urte naturala izango da.

Inguruabarrak direla-eta, urtebetetik gorako gauzatze-epea ezarri behar bada, edo aldi hautagarria aldatu behar bada, diru-laguntzen dagozkion oinarrietan jaso beharko da. Kasu

horretan, urtero bete beharko dituzte indarrean dagoen legeriak ezarritako baldintzak: interes orokorreko jarduerak sustatzea, bai eta toki-erakunde horren eta herritarren arteko lankidetzaren ere, interes publikoko jarduerak kudeatzeko.

### **C) Aurreikus daitezkeen kostuak**

Diru-laguntzen Plan Estrategiko honetan aurreikusitako diru-laguntzak ezartzeko, urte bakoitzeko udal-aurrekontuan dagozkion kredituak sartu beharko dira, eta, hala badagokio, norgehiagoka esleituko diren diru-laguntzen deialdia arautuko duten oinarriak onartu beharko dira, edo, kasu espezifikoetan, diru-laguntza horiek emateko oinarri arautzaileak jasotzen dituzten ordenantzak onartuko dira, edo zuzeneko emakida onartzen duen erabakia hartu beharko da.

Diru-laguntza emateko, aurrekontu-egonkortasunaren, finantza-iraunkortasunaren eta gastu-arauaren printzipioak bete beharko dira.

Kasu bakoitzeko kostuak udalaren aurrekontu orokorrean urtero finkatzen den kopurura mugatzen dira. Ezingo da zehazten dena baino zenbateko handiagoko diru-laguntzarik eman. Nolanahi ere, kredituek izaera mugatzaile eta loteslea dute, eta, beraz, ezingo da haien zenbatekoa baino gastu-konpromiso handiagorik hartu.

### **E) Finantzaketa**

Diru-laguntzen Plan Estrategiko honetan aipatzen diren diru-laguntzak udal-aurrekontuko kredituen kontura finantzatuko dira. Kreditu horiek aurrekontuan bertan zehazten diren aurrekontu-aplikazioetan kontsignatzen dira eta udalaren webgunean ageri dira eguneratuta.

# X. DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN KONTROLA, JARRAIPENA ETA GARDENTASUNA

## A) Kontrola eta jarraipena

Legazpiko Udalaren Diru-laguntzen Plan Estrategiko honen kontrola eta jarraipena urtean behin egingo da, bi alderditan:

Emandako diru-laguntzen **kontrol ekonomiko-finantzarioa**. Kontrol hori Legazpiko Udaleko Kontu-hartzailletza Nagusiari dagokio, eta indarrean dagoen legerian jasotako baldintzetan eta Kontu-hartzailletzak zehaztutako prozedurekin egingo da

**Planaren kontrola eta jarraipena.** Plan Estrategiko hori berrikusi egin behar da:

- Indarrean egoteari utzi dioten edo helburuak betetzeko eraginkorrak ez diren diru-laguntzen lerroak aldatzeko edo eguneratzeko.
- Mantentzen diren diru-laguntza lerroen zenbatekoak eguneratzeko.
- Aurrez ezarritako helburuak lortzeko beharrezkotzat jotzen diren jarduera-ildo berriak sartzeko.

Jarraipen hori urtero egingo du Zuzendaritzak, eta, horretarako, diru-laguntzak kudeatzen dituen zerbitzu bakoitzak justifikazio-memoria bat bidaliko du hurrengo ekitaldiko lehen lauhilekoan, zehaztaperen hauekin:

- Diru-laguntza lerro eta mota bakoitzari buruzko informazioa, emandako diru-laguntzak, justifikatutakoak, uko egindakoak eta itzulitakoak (edo itzulketa-prozeduran daudenak) jasoko dituenak.
- Helburu espezifikoaren eta horiek lortzeko epearen betetze-maila. Ondorio horietarako, diru-laguntzen lerro bakoitzean helburuak betetzeari buruzko adierazleak zehaztu beharko dira.
- Benetako kostuak, aurreikus daitezkeenei, ekintza-planari eta adierazle kuantifikagarriei dagokienez. Eragin nahi izan den errealitatearen gaineko eragina eta ondorioak.

- Plana aplikatzeak aurrekontuetan eta finantzetan izango dituen ondorioak.
- Ondorioak eta balorazio orokorra.
- Hurrengo Diru-laguntzen Plan Estrategikoa egiteko iradokizunak.

## **B) Gardentasuna**

Gardentasun-printzipioa betetze aldera, Udalak emandako diru-laguntza guztiak –ildo estrategiko, laguntza-programa eta deialdi bakoitzean–, urtero argitaratuko dira udalaren webgunean ([www.legazpi.eus](http://www.legazpi.eus)), bai eta Diru-laguntzen Datu-base Nazionalean ere, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 20. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta erakunde hartzailea zein den, diru-laguntza zenbatekoa den eta zer proiektu edo ekintzatarako den adieraziko da. Horretarako, jarraibide egokiak emango dira, diru-laguntzak kudeatzen dituzten zentroek aipatutako informazioa bidaltzeko prozedura ezartzeko.



# DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN ERANSKINA 2024-2027 BANAKAKO FITXAK



Legazpiko Udala

[www.legazpi.eus](http://www.legazpi.eus)

# INDICE

1. EUSKARA - Hitzarmena GOIERRIKO HEDABIDEAK	3
2. EUSKARA - euskara ikasteko eta UEUko edo euskararen normalizazioarekin zerikusia duten bestelako ikastaroetara joateko diru-laguntza	4
3. EUSKARA - Errotuluetan, irudi korporatiboetan eta Web guneetan euskararen erabilera handitzeko diru-laguntzak	5
4. EUSKARA - Kirol-hezitzaile/-entrenatzaileen prestakuntza euskaraz eskaintzeko dirulaguntza	6
5. KULTURA - Hitzarmena LEGAZPI ZINE KLUB elkartearekin.	7
6. KULTURA - Hitzarmena ARKATZA elkartearekin.	8
7. KULTURA - Hitzarmena BURDINOLA elkartearekin.	9
8. KULTURA - Hitzarmena TXIRBIL elkartearekin.	10
9. KIROLAK - Kirol Federatua	11
10. KIROLAK - Hitzarmena TELLERiarTE TXIRRINDULARI ELKARTEAREKIN.	13
11. KIROLAK - Eskola Kirola	14
12. KIROLAK - Eliteko kirolariak	15
13. HEZKUNTZA - Hitzarmena DOINUA MUSIKA ESKOLA elkartearekin.	17
14. HEZKUNTZA - Hitzarmena DOMINGO AGIRRE GURASOEN elkartearekin.	18
15. HEZKUNTZA - Hitzarmena OLAZPI GURASOEN elkartearekin.	20
16. HEZKUNTZA - Hitzarmena HAZTEGI IKASTOLA K. elkartearekin.	21
17. HEZKUNTZA - Eskola-materiala erosteko diru-laguntzak	22
18. GAZTERIA - Hitzarmena SORGINTXULO AISIALDI TALDEA	24
19. GAZTERIA - Grabazioak egiteko herriko musika taldeentzat diru-laguntzak	25
20. MERKATARITZA - Hitzarmena Legazpiko llinTE merkatarien elkartearekin	26
21. MERKATARITZA - Zerbitzuen sektorean jarduera ekonomikoa sustatzeko dirulaguntzak	28
22. TURISMOA - Hitzarmena LENBUR Fundazioarekin	30
23. GIZARTE ZERBITZUAK - Legazpin gizarte-zerbitzuen arloan diharduten elkarteentzako diru-laguntzak.	31
24. GIZARTE ZERBITZUAK - Hitzarmena ZAPOREAK erakundearekin.	33
25. GIZARTE ZERBITZUAK - Hitzarmena EUSKAL FONDOAREKIN	34
26. GIZARTE ZERBITZUAK - Hitzarmena ITSAS SALBAMENDU HUMANTARIOAREKIN	35
27. GIZARTE ZERBITZUAK - Gizarte Larrialdietarako Diru-laguntzak.	36
28. GIZARTE ZERBITZUAK - Tratamendu terapeutikora eta errehabilitazioetara joateko gastuetarako diru-laguntzak.	37
29. INGURUMENA - Hitzarmena BIOGIPUZKOA OSASUN IKERKETA INSTITUTU ELKARTEAREKIN	38
30. INGURUMENA - Hitzarmena LEGAZPIKO TOTIKO ENERGIA KOMUNITATEA "TEK LEGAZPI" ELKARTEAREKIN"	39



## 1. EUSKARA – Hitzarmena GOIERRIKO HEDABIDEAK

1. Lortu nahi diren helburuak eta ondorioak	Euskararen presentzia eta erabilera sustatzea eta normalizatzea eta tokiko euskarazko komunikabideen bideragarritasuna bermatzea.
2. Eragindako eskumen-eremuak eta laguntzen xede diren sektoreak	Euskarazko komunikabideak dira laguntzen xede den sektorea eta, behazki, eskualdekoak. Zeharka, helburuak herritar guztiengan du eragina
3. Denbora-eremua / Hori lortzeko behar den epea	2024-2027
4. Egiteko aurreikus daitezkeen kostuak eta finantzaketa-iturriak. Urte anitzeko programazioa	2024ko ekitaldia: 8.500,00 € 2025eko ekitaldia: 11.000 € 2026ko ekitaldia: 14.000 € 2027ko ekitaldia: 16.000 €
5. Ekintza-plana: Hitzarmenean jasotako oinarrizko ildoak eta egiteko egutegiak	Deialdiaren xedea eta helburuak: informazioa jorratzean eta zabaltzean, era guztietako edukiak eta gaiak argitaratzea: independenteak, pluralak, orekatuak eta parte-hartzaileak Egutegia: hitzarmena sinatzea: 1. hiruhilekoan. Urtebeko lankidetzeta.
6. Diru-laguntzen Plan Estrategikoarekin lotutako jarraipen-, ebaluazio- eta adierazle-araubidea	Ekintzen, lortutako helburuen eta joeren azalpen-memoria. Adierazleak: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Harpidedun-kopurua</li> <li>• Herriko albisten kopurua urtean</li> </ul>
7. Araubidea / Emakida-modalitatea	Hitzarmena
8. Onuradunak	Goierriko Hedabideak SL
9. Hitzarmenean aurreikusten al dira genero-berdintasunari buruzko gidalerroak eta hizkuntza- eta ingurumen-irizpideak?	Hitzarmenean, batik bat, hizkuntza irizpideak jasotzen dira: hizkuntza eredu eta hizkuntza kalitatea. Goierriko Hedabideak taldearen memorian berriz, genero bereziketarik gabeko tratamendua arautzen dute, genero Berdintasuna bermatuz.
10. Aurrekontu aplikazioa / zenbatekoa	001 0201 335 01 471 11 - Ekarpena Goierriko Hedabideak SL

## 2. EUSKARA – euskara ikasteko eta UEUko edo euskararen normalizazioarekin zerikusia duten bestelako ikastaroetara joateko diru-laguntza

1. Lortu nahi diren helburuak eta ondorioak	Euskararen ezagutza sustatzea, herritarren ezagutza eta erabilera handitzeko hizkuntzaren normalizazio bidean
2. Eragindako eskumen-eremuak eta laguntzen xede diren sektoreak	Legazpiko udalerrian erroldatuta dauden pertsona fisikoak
3. Denbora-eremua / Hori lortzeko behar den epea	2024-2027
